

# EUSKARAK 365 EGUN

## HIRU

Hirugarren aldiz, Euskaraldiak eman du berea. Bai eta ez. Bukatu da hamabost egunetako ekinaldia baina Euskaraldiak arrastoa lagatzen du, txapak neguko beroki preziatuan bezala.

Euskaraldian sua pizten da, martxan ipintzen dira aho eta belarriak, ari eta entzun, entzun eta ari, eta su hori ez da hain erraz itzaltzen, gogoetek eta bizipenek bere lekua egiten dutelako gure memorieta, ohituretan, emozioetan eta azaletan.

Orain arte soraluzetarrek kontatu dutenez, ekimenak balio izan die hausnarketarako, norbere hizkuntza-ohiturei erreparatzeko, ohiturak aldatzeko gogoia pizteko, euskaraz gehiago egin ahal izateko beharko genukeena argiago ikusteko, euskaraz egiterakoan pixkat gutxiago lotsatzeko, egoera deserosoak bizitzeko, zailtasunak ezagutzeko, ausartzeko, kuadrillan / etxean / dendan / tabernan / lantegian eragiteko, euskarari eusten eta euskarazko elkarrizketak mantentzen saiatzeko, gertukoekin hizkuntza harremana gazteleratik euskarara aldatzeko, euskara plana abiatzeko, ingurukoei norberari euskaraz egiteko eskatzeko / gonbidatzeko...

Askotariko su txikiak piztu ditu Euskaraldiak Soraluzen eta bakoitzak egingo du bere bidea, besteenekin gurutzatuz.

## SEI

Su horrek arnasa hartzen du, hartu eta bota, hartu eta bota. Kanpotik barrura hasten da Euskaraldia: bere berri entzuten hasten gara, kartelak, mezuak, albisteak... Badatorrela abixua jasotzen dugu eta edizio berritasunak eta azpimarrak ere bai. Konturatu orduko, iritsi da ekiteko garaia eta barruan sartu zaizkigu gogoetak, erronkak, ilusioa... eta hasi gara horiek denak elkarbanatzen. Hala, Euskaraldia joan-etorrian ibiltzen da geruza batetik bestera, eta denak ehuntzen ditu. Izan daitezke sei: norberarena eta kolektiboa, parte hartzaileena eta antolatzaileena, erakundeena eta herritarrena. Norberak darama txapa bularrean eta aldi berean milakak; milaka lagunek egiten dute Euskal Herri osoan zehar ariketa eta ehundaka dira txindurri lanetan aritzen direnak ekimena prestatu, bideratu eta zabaltzen; ehundaka dira antolakuntzan aritzen direnak, batzuk erakunde publiko, pribatu eta sozialetan eta beste batzuk boluntario modura Euskaraldiko batzordeen bueltan. Sare zabal eta txirikordatu sortzen da ahalegin askoren baturatik.

## BOST

Esan dezakegu, "niri bost!", baina milaka gara "ekarri bostekoa!" esaten dugunok. Euskaraldia txikle baten moduan luzatu eta hamabost egunean barik, egunerokoan eta urte osoan zehar euskara gehiago, gehiagotan eta gehiagorekin egitera ausartuko garen euskaltzaleak. Eta geure ardura hartuko dugu, baina ez dagokigu guri bakarrik. Norberaren eta euskararen erakunde borondate, ahalegin eta lanaren bide progresiboari hizkuntzaren esparruaren garapenerako baldintzak hobetzen joatea gehitu behar zaio. Eta hor dute zeregina, adibiderako, Hizkuntza Politikarako Sailak bezainbeste Sustapen Ekonomikokoak, kultur paisaia euskaldundu dezaketzen merkataritza eta ostalariek, zerbitzua eta barne jarduna euskaraz eskaini dezaketzen enpresek eta elkarteek, lurralde elebidun/eleantzetan herritar guztien hizkuntza eskubideak bermatzeko ardura duen administrazioak. Bostekoa hartu eta eman egiten delako aldi berean, arnasa bezala. Garai ezin hobea da elkarlanean euskaraz egiteko aukerak sendotzeko.

Eutsi hitzari, bultza ekimenarekin, orain da garaia!